

## **9.Funtsezko jarduerak**

Gure funtsezko jarduera, gps-arekin ekipatutako bitxiak sortu eta ekaintzea izango da. Gure proiektua funtzionatzeko, bitxiak ekoizten dizkigun enpresa bat eta gps-ak sortzen eta ekoizten dizkigun beste enpresa bat beharko genuke. Guk bi elementu horiek arteko muntaia egingo dugu. Horretaz gain, gure enpresa ikusgarriago egiteko publizitate eta marketing jarduerak egin behar ditugu eta horretarako. Gainera, ezin dugu ahaztu gure bereizgarri nabarmenena: eskeiniko ditugun terapia eta autodefentsa saioak.

-Ekoizpen jarduerak: jarduera honetan, lehendabizi, bitxiak eta gps-ak erosiko ditugu. Gure kasuan, bitxiak, bitxi sortzaile bati erosiko dizkiegu eta gps-ak eskuratzeko, enpresa bat kontratatuko dugu . Geroago, gure produktua ekoizteko, langile batzuk beharko ditugu bitxiei, gps-ak akoplatzeko.

-Salmenta jarduera: gure produktuak gure dendan eta online salduko ditugu gure web orrialdean.

-Hornikuntza edo erosketa: ekoizpen jardueran esan dudan moduan, bitxiak, bitxi sortzaile bati erosiko dizkiogu eta gps-ak beste enpresa bati. Erosketak egiteaz gain, biltegiaren kudeaketa egoki bat egitea ere beharrezkoa da.

-Sare sozialen eta web horrialdearen kudeaketa: gure webgunea sortzeko, langile bat kontratatuko dugu, geroago, orrialdearen mantenimenduaz ardurako dena.

-Langileen kudeaketa eta lan harremanak: Langileak aukeratu, kontratatu, argibideak eman, soldatak eman...

-Autodefentsa kurtsoen kudeaketa:bezeroek segurtasun handiago lortzeko kalera ateratzeko eta diru pixka bat lortzeko, pentsatu genuen autodefentsa kurtsoak antolatzea. Guk egingo dugu kurtsoen kudeaketa baina kanpo agente batek eskeiniko ditu kurtsoak.

-Terapia sesioen kudeaketa: beldurrari aurre egiteko terapia saioak egitea ere pentsatu dugu. Jarduera honentzako, psikologo eta adituak kontratatuko ditugu. Gure dendaren atzekaldean dugun gunean egingo ditugu ekintza hauek.

-Jarduera ekonomiko finantzarioa: gu geuk kontrolatuko ditugu gure finantziak. Horren ondorioz, guk izango gara langileen artean dirua banatzeaz, gure irabaziak kalkulatzeko eta dugun dirua zenbatseaz ardurako direnak.